

ERDIALDEKO AMERIKAREKIN LANKIDETZAN

AMVISAK partaidetza aktiboa dauka **Euskadi, El Salvador eta Costa Ricaren arteko Lankidetzaren Triangeluarreko Programa** batean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, URA-Uraren Euskal Agentziarekin, diputazioekin, Bilboko Udalarekin, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoarekin, Euskal Fondoarekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin berarekin batera.



Argazkia: Euskal Fonda

Helburua da maila teknikoan eta finantzarioan kooperatzea, "eragile anitzeko formatu" batean, erakunde bakoitzaren konpetentziak eta esperientzia baliatuz, eta bakoitzaren ezaugarrien, aukeren eta baliabideen arabera.

Lehen ekintza moduan, **AMVISAK eskaria kudeatzeko estrategien garapenean daukan esperientzia konpartituko** du ANDA eta AyA erakundeetako teknikariek, horiek arduratzen baitira El Salvadorren eta Costa Rican uraren eta saneamenduen kudeaketaz, hurrenez hurren. Erakunde horiek interesa erakutsi dute AMVISAK sarea kontrolatzeko duen politika eta bere Futura Planean garatutako egitasmoak ezagutzeko, horiei esker, gure hirian uraren kontsumoa heren bat murriztu ahal izan baita, biztanleko eta eguneko 300 litrotik 200 litrora igarota azken 15 urtean.

OBRAK MARTXAN



Sareak berritzeko politikari jarraituz, AMVISA **Lakua-Arriaga auzoko fibrozementuzko hoditeria zaharrak ordeztzen** hasi da, horien ordeztze fundizio nodularreko beste batzuk jartzeko, erresistenteagoak, iraunkorragoak eta ingurumenarekiko jasangarriagoak. Jarduera hori aprobetxatuz, **saneamenduko kolektoreak ere egokituko** dira, barrualdean poliesterrezko mahukak jarritz, kasu honetan lur erreternik ireki beharrik gabe. Guztira, edateko ureko 6.350 metro hodi ordeztuko dira, eta 2.335 metro kolektore, lizitazioaren zenbatekoa 2.766.160,74 € izanik.

Herritarrei albait eragozpen gutxien eragin nahian, kalez kale programatu dira lanak, eta saihestu egin da gertuko bi kaletan aldi berean aritzea.

Hartara, auzo osoa aintzat hartuta, lanak 2019ko uztaila arte luzatuko dira, baina kale bakoitzari erreparatuz gero, epea nabarmen laburragoa izango da.

Horrez gain, **Hegoaldeko Tranbiaren obrek eragindako kaleen urbanizazio berria ere aprobetxatuko da** – Florida, Castro Urdiales, Nieves Cano eta Martinez de Aragon – hornidura eta saneamendu kanalizazio zaharrak berritzeko. AMVISA Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuko da 1.417.000,00 €-ren truke esleitu diren lanak egiteko.



Gogoan eduki!

URAREN KUDEAKETAREN PRAKTIKA ONEN MULTZOA

3 KONTUZ KOMUNAREKIN!

Komuna da etxeko kontsumoen erantzule nagusietako bat (modelo zaharretan urari ematen zaion bakoitzean 9 litro ur ere kontsumitu daitezke). Gainera, bertatik, hondakin desegoki ugari sartzen dira estolda sarean.

- ✓ Erabili zuzen deskarga sistemak. Gaur egungo komunek sakatzeko sistema bikoitza dute, edo, bigarren aldiz sakatuta, deskarga eteteko sistema daukate, modu egokian erabilia, deskarga beharretara moldatu ahal izateko.
- ✓ Deskarga sistema aldatu behar baduzu, trabatzen delako, ez dabilelako ondo edo ura galtzen duelako, aukeratu modelo efiziente bat. Ez da beharrezkoa komun osoa aldatzea.
- ✓ **Ez bihurtu komuna zaborrontzi.** Estolda sarean aurkitzen diren hondakin orokor guztiek komuna ez den beste aukera bat dute jasotzeko.
- ✓ Ez erabili botatzeko toallatxoak, eta, erabili beha badituzu, ez bota komunitik behera. Uretan deskonposatu daitezkeen arren, saneamendu sistemak ez daude horretarako prestatuta, eta ezin dute egunero milioika toallatxo jaso.



IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org